

Guraso agurgarriok:

Inork ez ditu ezagutzen zuen seme-alabak zeuek baino hobeto eta, beraz, lekuz kanpo dago haien heziketari buruzko aholkuak ematea. Hala eta guztiz ere, seme-alabak euskaraz ere hezteko proposamena egin nahi dizuet, EUSKARA AIREPORTUA abiapuntutzat hartuta.

Zergatik? Euskara mesedegarri izango delako zuen seme-alabentzat. Bertoko hizkuntza lau mila urtez transmititu da belaunaldiz belaunaldi eta bide horretatik jarraitu nahi badugu, ez handikerietan pentsatu eta begiratu etxean duzuen umeari, bera delako euskara hurrengo belaunaldira ondorengoetaratzeko zutabe nagusia.

Eta nola lagundu ahal diozue umeari horretan? Ba, euskara eskainiz ahal den guztietan, bakoitzak ahal duen neurrian. Gu ere lan horretan gogotik laguntzeko prest gaude, udaleko Euskara Zerbitzuaren bitartez.

Adeitasunez, hartu nire agurrik beroena.

—

Estimados padres y madres

Nadie conoce mejor que vosotros a vuestros hijos e hijas, y está fuera de lugar que yo os de consejos sobre su educación. De todas formas, sí quisiera proponeros que tengáis en cuenta el euskera en la educación de vuestros hijos, iniciando un hermoso viaje desde el AEROPUERTO EUSKERA.

¿Por qué? Porque saber y utilizar euskera será beneficioso para vuestros hijos e hijas. Nuestra lengua se ha transmitido durante cuatro mil años de generación en generación, y para continuar por ese mismo camino, no hemos de pensar en grandes hazañas, sólo tenemos que fijarnos en nuestros niños y niñas. Enfrente tenéis a un pilar fundamental para la transmisión de la lengua a la siguiente generación.

¿Y como podéis ayudarles en esa labor? Pues ofreciendo a vuestros hijos e hijas todas las oportunidades que estén a vuestro alcance para que aprendan y utilicen el euskera. Desde el ayuntamiento estamos dispuestos a ayudaros en todo lo posible, mediante el Servicio de Euskera.

Recibid un afectuoso saludo.